



Emakume migratuen arreta integralerako zenbait orientabide genero-ikuspegi iterektzionalek

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Batzordearen ekimenez, orientabide multzo hau eskaintzen zaigu **Migrazio eta Asiloaren Euskal Forotik**. Helburua da emakume migratuek bermatua izan dezaten egiazko berdintasunerako eskubidea bizitzako alor guztietan.

Proposamenak bere egiten du genero-ikuspegi iterektionala, bai baitakigu zenbaitetan **emakume migratuak mota desberdinetako diskriminazioen biktime** direla une berean.

Asistentzialismoa atzera utzita, ikuspegi iterektionalak **ahalduntzea, autonomia eta parte-hartze aktiboa** sustatzen ditu emakumeek beren bizitzaz erabakitzean.



Arretarako zeharkako printzipioak



Eskubideen ikuskera bat eta Ahalduntzea

Emakumeek beren eskubideak ahaldundurik eskuratzen eta gauzatzen dituztela bermatzea, bai beraiek bai besteok emakumearen subjektu-izaeraz jabetu gaitzen.



Langileen prestakuntza

Prestakuntza jarraitua eta eguneratua bermatzea berdintasunaz, kulturartekotasunaz eta iterektionalitateaz.



Segurtasun-giroa

Konfiantzazko inguruneak sortzea, emakumeak babesturik, entzunik eta ez-diskriminaturik senti daitezten. **Konfidentzialtasuna ziurtatzea.**



Hizkera inklusiboa

Hitzezko **nahiz ikusizko hizkera ez-estereotipatua erabiltzea**, aniztasunaren alde eginez.



Jarrerak

Kultura-aniztasunerako irekitasuna, **enpatia eta entzute aktiboa sustatzea**, emakume migratuekiko aurreiritziak eta estereotipoak baztertuz eta duintasunezko, errespetuzko eta diskriminaziorik gabeko tratua bermatuz.



Osasun integrala

Osasunaren alderdi guztiei erreparatzea: **fisikoa, sexuala, ugalketarena, emozionala eta mentala.**



Informazioa, orientazioa eta esku-hartzea

Emakume migratuentzako akonpainamendua **errespetuz eskaintzea**, beraien jakintza eta baliabide propioak balioetsiz. **Arretaren eskuragarritasuna bermatze aldera**, litezkeen hizkuntza- eta kultura-oztopoak desagerrarazteko tresnak baliatzea (bitartekaritza, itzulpena, hizkera argia), emakumeen esku-hartze aktibo eta autonomia bultzatuz erabakiak hartzerakoan.

Haien denborak, testuinguruak eta gaitasunak **aintzat hartzea.**



Enplegua eta lan-orientabidea

Enplegu duina bermatzea, alor feminizatu eta prekarioetara daraman etnoestratifikazioa gainditzeko.



Indarkeria matxistak

Prebentziorako programak eta baliabideak garatzea. **Arreta espezializatua eta babes eraginkorra bermatzea.**



Ebaluazio parte-hartzailea

Emakume migratuen parte-hartze erreala eta protagonismoa bermatzea politika publikoetako programak, **zerbitzuak eta prozesuak planifikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko unean.**